

4 Osatu elkarrizketa.

omen ote al

- Non ..... dago katua?
- Txispi, katutxo! Zatoz hona!
- Ez ..... gaitu entzun. Deitu berriz.
- Txispi, begira zein gozoa... Jan nahi ..... duzu?
- Ez dator, bai bitxial! Lo ..... dago. Goazen bila.
- Hara! Hementxe dago, sukaldean.
- Zer gertatzen ..... zaio buruarekin horrenbeste buelta egiteko?
- Gaixo ..... zaude, Txispi?
- Ez, bai! Peluzezko panpino garbigailuan sartu dut, eta panpinarekin zer gertatuko ..... den adi-adi dago.



5 Osatu esaldiak, *al* eta *omen* hitzak erabilita. Ondoren, idatzi bi multzotan esaldiak: *al* dutenak, batetik, eta *omen* dutenak, bestetik. Irakurri esaldi multzo horiek, eta asmatu zer edo nor den.

- Musika nota ..... da? Bai.
- Arraina ..... da.
- SOL eta SI musika noten artean ..... dago? Bai.
- Koloretakoa ..... da.
- Telebistan agertu ..... da.
- Txirulan, goitik hasita, bigarren zuloa ..... da? Bai.
- Haren izena *omen* hitza atzekoz aurrera irakurrita ..... da.
- *Al* hitza atzekoz aurrera irakurrita ..... da? Bai.

*Omen* hitza duten esaldiak. Nor da?

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....

*Al* hitza duten esaldiak. Zer da?

- 1 .....
- 2 .....
- 3 .....
- 4 .....